



Bidea urratu duten bertsoak



Bidea **urratu** duten
bertsoak

2014ko urtarrila

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

Testuen egile eta bertsoen hautatzailea:
Estitxu Eizagirre Kerejeta.

Argazkiak: Nafarroako Bertsozale Elkartea,
Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Alberto Elosegi,
Galder Izagirre, Karkara, Zaldi Ero, Dani Blanco, ARGIA.

Lege gordailua: SS-99-2014

Fotokonposaketa eta inprimaketa:
Antza komunikazio grafikoa • Lasarte-Oria

Liburu hau Komunikazio Biziagoa S.A.L.-ren eta Emakunderen arteko
koedizioa da.

argia



Babesleak:



Hasierako agurra

Bertsoak dira bilduma honek hautatu dituenak.

Bidea urratu zuten bertsoak:

Jaso direnetan lehenengoak direlako,
eredu hegemonikoan nagusi zenari erantzun zielako,
gertakizun historiko bat inongo kronikek ez bezala jaso zutelako,
txapelketan kantatutako lehen bertsoa izan zelako,
txapeldunaren agurra delako,
bizipenak estrainekoz dakartzatelako,
gaiak taularatu dituztelako...

Antzinakoetan baziren askoz bertsolari gehiago, euren bertsoarik eta are izenik jaso ez den arren. Jaso izan diren bertsoak ezagutara-zi nahi genituen eta bertsolarien jarrera aldarrikatu, beren garairako korrektoak ez izateak egin baitzituen bertsolari.

Bilduman agertzen diren bertsolariak bazituzten bertso hobek ere, lehendik asko zapalduetako bideetan botekak. Urratzaileen bila atereak gu ordea.

Egungo bertsolari eta sorten artean utzi behar izan dugu gehien bazter. Hurrengoren batean sartzeko aukerak goxatzen dizkigu erreminak. Baina ez gaitzen gaurko itxurazko oparotasunean lokartu: lehenengoetan bezala egungoetan ere bertso urratzaileak (5 sorta ezik gainerakoak) bakarka idatzi edo botatakoak dira, plazan bidea bakarka ireki behar izan denaren seinale. Biren artean osatutako bost sortetan, bakarra da bat batekoa.

Gogoan genituen sortak liburuxkan ikusteko irrikatik sortua da bilduma hau. Zuk ere sorta gogokoak ikasi eta herriaren memoriari dagokien lekua irabaztea luke gailur.

Estitxu Eizagirre Kerejeta
Testuen egile eta bertsoen hautatzailea

Oholtza bat **norberarena**



ZAPLA ERANTZUNA

PLAZIDA OTAÑO

1867 inguruan jaioa, Zizurkilen. Pedro Mari Otaño lehengusu zuen eta Joxe Bernardo Otaño aita, bera bezala bertsolari handiak.

Bertsotan ederki moldatzen zen Plazida. 18 urte besterik ez zituela, etxeko sukaldean, adinez aurrera zihoala esan omen zion aitari eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dotetxea prestatzen hasteko. Joxe Bernardok bertso hau kantatu omen zion:

Ezkondu behar denala,
ho(r)ji den baloria!
Hemezortzi urte den
hire edadia.
Pikara, gaizki hazi,
lotsarik gabia,
hik aberastuko naun,
lehen banaiz pobria.

Eta alaba Plazidak bertsotan erantzun:

Aita, zahartu ta gero
garai hobia ez da,
neska gaztiak ere
badu bere kezka.
Ilea zuriturik
nobiorik ez-ta,
orduan alperrik da
soinua ta festa.

Behin, Txirrita Zizurkilera joan eta Plazida Otaño ikusi omen zuen zelaian pagotxa ebakitzen ari zela. Bertso hau bota omen zion Txirritak:

Gauz bat esango dizut
modu ondraduan,
noski ez naiz hasiko
hemen endreduan.
Nonbait egongo zara
aldarte eruan,
gaur horla zabiltzanean
udako beruan,
ez da atsegin izango
zure inguruan.

Eta baita Plazidak erantzun ere:

Arrazoi horrek badu
bere parezera,
konprenituko dezu
mutila bazera.
Udarako beruaz
kejatzen al zera?
Lana hortan badezu
egiten atzera,
fraile sartu zintezke
komentu batera.



NESKAZAHARREN ALDE

**JOXEPA ANTONI ARANBERRI
PETRIRENA "XENPELAR"**

Iturria: Elixabete Perez Gazteluren Joxepa Antoni Aranberri "Xenpelar" lana.

1865ean jaioa, Erreterian. Joxepa Antoniren ama, Maria Luisa, baztanga jo zituen Xenpelar anaia bertsolaria eta familia zaintzera joan zen, senarra Jabier Inazio eta 4 urteko alabatxoa, Joxepa Antoni, etxean utzita. Ama ere kutsatuta hil zen. Haren bertsorik gorde ez den arren, bertsolaria zen hura ere, anaiarekin aritzen zen kantuan fabrikan.

Halaxe aitortzen du Joxepa Antoni bertsolariak bertso batean baino gehiagotan, ama-osaben segiziokoa zela: "Xenpelar" izendatzen du bere burua. Joxepa Antoni Xenpelarri esker iritsi zaizkigu, hain zuzen ere, osaba Juan Frantzisko Xenpelarren bertso asko. Besteak beste "aizak hi mutil, mainontzi" eta "Pasaiaiko plazatik".

Aitaren borondateari kontra eginez, ahal zuen adinera arte eskolara joateari eutsi zion.

Garai hartan Erreteria langileen herria bihurtzen ari zen eta langile haietako bat izan zen Joxepa Antoni bertsolaria. Ez dakigu noiz arte ikasi zuen, akaso 9 urterekin utzi beharko zuen eskola. 12 urterekin (1877) hasi zen lanean Fabrika handian, ama, osaba Xenpelar eta beste makina bat erreteriar eta erreteriaratu bezala.

Mundu zabalari ere begiratu zion, besteak beste 1914ko Munduko Gerrari bertsoak jarri zizikion.

1921etik aurrera, Santsoenea kaleko jostundegia zuten emakumeek elkartzeko gune. Han aritzen omen ziren Xenpelarren, Txirritarren, Zabaletarren eta inguruko beste makina bat bertsoariaren bertsoak kantatzen.

Etxea ez ezik, lantegia eta jostundegia ere izan zituen bertso-leku Joxepa Antoni Xenpelarrek. Hortxe entzungo zituzten eta kantatuko Joxepa Antoniren bertsoak entzuleek, emakumeek batez ere, eta hortxe paper muturretan idatzi bertsolariak berak eta lekukoek. Baina beste urrats bat ere egin zuen: Resurrección Maria Azkuek (Kirikiñoren laguntzaz) 1902 eta 1903an Bilbon plazaratzen zuen euskal aldizkari batera, *Ibaizabala*, bertsoak bidali, argitara zituzten.

Joxepa Antonik bat-batean bista galdu zuen eta erdi itsututa bizi izan zen azken 20 urteetan, 1923tik 1943ra, alegia. Hala ere, lanera joaten segitu omen zuen urte mordo batean, nagusiak hala nahi izaki, Joxepa Antoni kontra-maistra baitzen. Baina gero Joxepa Antonik berak eskatu zuen erretiroa. Pentsa daiteke 1937 arte edo lan egin zuela Fabrika handian. Minbiziak 1943ko abenduaren 29an eraman zuen.

TESTUINGURUA

Joxepa Antoni Xenpelarri ezagutzen zaizkion lehen bertsoak dira hauek, 1902an jarriak. Garai hartan, Azkuek zuzentzen zuen *Ibaizabal* aldizkariak bertso-paper lehiaketak antolatzen zituen. Gaiak ere berak jartzen zituen, orduko hartan “Neskazaharrak” eta “Mutilzaharrak”. Errenteriko Enrike Elizetxek sekulakoak eta bi jarri zituen neskazarren kontra, sariketa irabazi egin zuen eta bere bertsoak publikatu egin ziren *Ibaizabalen*. Horrek eragin zuen haserrea bertsoan itzuli zion Joxepa Antoni Xenpelarrek.

1

Ez nuen bada pentsamendurik
zuri bertsoak jartzeko,
baina lagunek esan didate
isilik ez egoteko;
motiborikan ez dugu eman
zu horrela mintzatzeko,
ez diren gauzak esan dituzu,
dina da minberatzeko.

2

Ibaizabalen sari txiki bat
irabazteagatikan,
gogora etorri zaizun guztia
esan duzu gugatikan;
nik esan behar banu, munduan
zaude gaur guregatikan,
zu sendatzeko sendagarririk
etzan inongo botikan.

3

Zenbait alditan zu sendatzeko
egin ditugu errezoak,
pena handia ematen zigun
emazte eta gurasoak;
zeinek pentsatu zuk gure kontra
hola jartzea bertsoak?
ez gara bada zuk uste duzun
bezain enbidiosoak.

4

Gu ernegatzen bizi garela
senargaiarikan ez ta,
nire lagunen artean behintzat
horrelakorikan ezta;
niri sinisten ez badidazu
etxean hasi galdezka,
nik baino hobeto emango dizu
Bizentak* errespuesta.

* Neskazaharren kontrako bertsoak jarri
zituena arena, ezkongabea hau ere.

5

Zure amigo batek esan du
neskazar onik ez dela,
horren ederki gure gainean
egin duzue pastela;
pruebarik asko berak baditu
hori egina ez dela,
gure moduko pertsona ez da,
esango nuke bestela.

6

Gazteak moja joan direla ta
gaur kulpa neskazaharrari,
zure partetik nahi gaituzula
danok herritik bidali;
bokazio hori ez bazeukaten
zertako hala ibili?
lagundutzea zuten etxean
aitari eta amari.

7

Neskazaharraren izenak denak
dituela ikarutzen,
horien jabe egin ezker
egongo dela erretzen,
zerbait dutenak izanagatik
ez hasteko hoiak hartzen...
guretzat beste disparaterik
ez al zaizu gogoratzen?

8

Eskean dela esan diguzu
gehienen errematea,
ez da seguru ezkonduak e(re)
bide hortara ez joatea;
ia ikusi dugun ezker
gaur zure borondatea,
eskusatuko dugu jotzea
zure etxeko atea.

9

Ez zait gustatzen erlijio
gauzak ahotan ibiltzea,
errespetuko gauza guztiak
serio tratatutzea;
harriturikan gelditu gara
zu horrela mintzatzea,
esperatzen dut hainbesterekin,
Enrike, konprenitza.

10

Edadetxoko nire lagunak
nahi nituen anparatu,
horiei gustu emateagatik
ditut ordainak bueltatu;
nahi badituzu *Ibaizabalen*
hoiek ere kopiatu,
eta saririk ematen badu
gutaz ere akordatu.

Gosearen bertsoak

JOXEPA ANTONI ARANBERRI PETRIRENA "XENPELAR"

TESTUINGURUA

1936ko gerra ostean, 1941-1942 urteetako gosetean, Bagues Fabrika handiko nagusia ez zen oroitu Joxepa Antoniz, denek horren premiazkoak zituzten patatak banatzerakoan. Bertsoz egin zion eskea eta bertan erretratatu zituen urte haietako gosetea eta herri xehearen beharrak.

1

Esan didate: “Markola aldean
lur-zati handiak daude,
gutxienean izango dira
zazpi edo zortzi golde,
lur-zati hoienean parte gehiena
patata ereinak daude”.
Joan den urtea igaro zaie
gutaz akordatu gabe,
Bagues jauna, orain oroitu,
ez utzi gu aurten gabe.

2

Hirurogei bat urte aldean,
oso ez badira ere,
gure lantegi handi horretan
lana eginak gerade,
uste dudanez bi gizonekin
bost bat emakume gaude;
Bagues jauna, ez haserretu
bertsoak gaizki badaude.

3

Gure lantegi handi horretan
pasea urte gehiena,
Migel Mari da, horixe dugu
denetan zaharren-zaharrena;
bigarren, berriz izenik gabe
denek ondo dakitena,
urteak utzi alde batera,
hauxe dugu beharrena:
nahiko patata oilaskoakin
pasatzeko Madalena.

4

Nire denboran izandu diot
afizioa kantari,
inon bertsozik azaltzen bazen
erosi ta irakurri;
umore ona lagun artean,
hori gustatu zait niri;
oraintxe ia eskapatu zait,
hala ere bertsoa jarri;
ez dakit nola erori zaizkan
gure Bagues jaunari,
barkazioa eskatzen diot
hitz egin badut gehiegi.



HERRIAREN ERRESISTENTZIARI KANTARI

JOXEPA MATEA ZUBELDIA ELIZEGI

1867an Hernanin jaioa. Ibarluze baserrian jabeak Madrilgoak ziren eta ohitura zegoen bertako alabak Madrilera, nagusien etxera nes-kame eramatekoa. Joxepari ere tokatu zitzaion, neska kozkorretan Madrilera joatea. Neskametzatik ateratzeko modua ezkontzea zen: Manuel Ortiz Burgoskoarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten Madrilen. 1904 inguruan Hernanira itzuli ziren eta hemen jaio ziren bi alaba.

Gizonak ez zuen euskaraz ikasi, baina etxean seme-alabek dena euskara egiten zuten (Madrilen jaiotakoek ere gazteleraz oso gaizki egiten zuten).

Madrialdik itzultzean, Hernaniko Kale Nagusian janari denda jarri zuen Zubeldiak. Senarra mehatzeetan lan egina zen eta erabat gaixo zegoen, asmak jota ezin zuen arnasarik ere hartu. Joxepak, seme-alabak hazi eta berak bakarrik jarri eta atera zuen aurrera denda.

Asko idazten zuen, luma eta tinteroarekin: poesiak, errezo asko eta bertsoak. Elizan kantatzen ziren kantu batzuen hitzak Joxepare-nak zirela uste da. Berak egiten zituen bere koadernoak: Paper fabri-katik paper roiloak ekarri, orriak neurrira moztu, orratzarekin eta listiarekin josi, eta pasta bana jartzen zien aurre eta atzean. Koa-derno pila idatzi zituen. Alabak oso lotsatzen ziren bere ama bertso-lari zelako eta jendaurrean kantatzen zuelako. Eta ama hil zenean koaderno denak erre zituzten.

Kale Nagusiko balkoitik aritzen zen bertsoan herriko beste bertsolari batekin. Ezkiaga pasealekuan herri bazkariak egiten zituzten eta berak bertsoak kantatzen zituen.

TESTUINGURUA

Gobernadore Gorenak 1918an agindu zuen, hurrengo eguneko 10ak baino lehen, Lasarteko baztangadun gaixoak Hernaniko Benefizentzi Etxera ekar zitezten. Gogorra izan zen udal ordezkarien haserrea, herritarren osasuna, Benefizentzi Etxeko egoiliarrena eta herriko industriaren interesak arriskuan jartzen zituelako. Erabaki horren kontra agertu ziren, Gobernadore jaunarekin Donostian mintzatzeko batzorde bat izendatuz. Gobernadoreak uko egin zion batzordea hartzeari, eta goi agintariei protestazko telegramak igortzeari ekin zioten erabaki hori atzera zedila eta beste irtenbide bat eskatuz. Gestiotan ziren bitartean heldu zen lekualdatzeko ordua, eta herria, orobat elkarturik “ez klase eta ez sexu, inolako diferentziarik gabe”, halaxe esaten da Udaletxeko akta batean, aurpegi ematera irten zen. Bere esku zituen arma guztiekin borrokatuz lortu zuen baztangadunek atzera egitea: Lasartetik urrundu gabe barrakoi batean kokatu zituzten.

Garaipenaren ostean herri bazkaria egin zen Ezkiaga pasealekuan. Mahai gainera igo eta aulki batean eserita kantatu zituen bertso epiko hauek Zubeldiak. Bere alabek horrela kontatzen zuten: “Zer lotsa guretzat, gure ama mahaira igo zenean jende guztiaren aurrean bertso haiek kantatzera!”.

1

Apirilaren bian
Hernaniko herria
lau orduan egon zen
ikaragarria
garrasi ta dea(da)rka
orduko larria
eskerrak genuela
batasun handia.

2

Gertaera hau izan zen
asteartearekin
aurreko egunean
ez genuen jakin
hemen izandu zela
astelehenarekin
Gobernadore jauna
gogor egin nahirik.

3

Ikusi nahi zuela
bere begiekin
Hernaniko ospitala
nola zegon jakin
ia ote zegoen
kondizioakin
erakutsi zioten
leialtasunakin.

4

Laster ontzat eman du
kondizio onakin
bialdutzeko zazpi
gaixo baztangakin
baina beste gauz asko
mintzo hoiengatik
ez zitun erabaki
hemengo jaunekin.

5

Gobernadoreari
gure alkate jaunak
eskaini omen zizkan
erosotasunak
zaindu ta sentatzeko
han baztangadunak
toki berezi baten
txit ederki danak.

6

Alperrik izan ziren
arrazoi guziak
ez zizkan aintzat hartu
Gobernadoriak
askotan ohi bezala
berek hobiak
entzun gor egin zion
goi agintariak.

7

Gure alkate jauna
bere lagunekin
Donostiara joan ziran
gaueko hamaikakin
konpontzen ote ziren
jaun handi horrekin
triste bueltatu ziren
goizeko hirurakin.

8

Gauetz joanagatikan
larritasunakin
ez zien kasorikan
jaun hoieri egin
hau egiten duenak
herriko jaunekin
zer egingo ote du
jende pobreekin?

9

Goizeko zazpitan
ostera joan dira
Tolosa(ra) joan zaiote
Gobernadoria
haiek bidali zuten
herrira partia:
“Baztanga eta indarra
berehala hor dia”.

10

Orduantxe Hernanin
ez zen lo jendia
kanpana ta tronkua
dantzatuak dia
tronko handikin itxi
ziraden bidiak
barrika gurdi eta
asma ahal guziak.

11

Bidera atera ginen
emakume asko
ta ailegatu baino lehen
egin dugu alto
zibilak esan zigun
etxera biltzeko
baitzutela baimena
odola isurtzeko.

12

Isurtzen baduzue
odola gurekin
hil beharrak zarete
zuon zaldiekin
guztiok bizkor gaude
gauza gogorrekin
bihurtu hobe duzue
baztangadunekin.

13

Zibila franko baitzen
zaldi galantekin
guri desafioka
beren ezpatekin
ez ginen ez izutu
hoiek guziekin
denok atera ginen
mirari handiak.

14

Mikela ta Axentxi
pareja fuertea!
Haiek aurren zirela
fin ginen jendea
zaharrak eta gazteak
neskatx ta andreak
andre txit aberatsak
baita ere pobreak.

15

Lana egin genuen
gupida handi gabe
senarrak utzirikan
bazkaririk gabe
hustuta petrolioz
ospitala igurtzi
agudo erretzeko
kristal danak hautsi.

16

Apaizak eta mojak
negar eta ausi
halako trantzerikan
ez zuten ikusi
gure moja gaixoak
belauniko jarri
eta telefonoan
Madrila Maurari.*

* Ministro Kontseiluko Lehendakari
zen Maura.

17

Arren suplikatzeko
Gobernadoreari
nolako trantze estuan
zegoen Hernani
alkatea aurren zela
Hernaniko jaunak
ondo egin zituzten
telefono lanak.

18

Molestatu zituzten
erreguetan danak
Garcia Prieto ta
Santillana danak*
Azkeneko trantzean
estu eta larri
suplikatu zioten
koronel jaunari.

* Gobernuko Ministroa zen Garcia
Prieto eta eskualdeko Diputatu
Santillana.

19

Arren erregutzeko
Gobernadoreari
ez uzteko galdutzen
horrela Hernani.
Permisoa eskaturik
Montes prestuari
bere telefonoan
Tolosara jarri.

20

Atenditurik ondo
teniente koronelari
eta gainera gure
alkate jaunari
orduan bigundu da
bihotz gogor hori
damuz barkatzen zaio
pekatariari.

21

Hurrengo egunean
guztioek elkarri:
“hemen gertatu denak
amets bat dirudi”
kulpa gabe galtzerik
nonbait ez komeni
graziak eman denok
Jaungoiko jaunari.

22

Nik suplikatzen diot
alkate jaunari
obsekio txiki bat
emakumeeri
zortziko eder batekin
zahar ta gazteeri
alegre gerta dadin
egun triste hori.

23

Gizonak erregalo
emakumeeri
loretxo polit bana
zahar ta gazteeri
egun hortan guztioek
jantzita ibili
ondo distingitzeko
egun handi hori.

24

Horra bertso berriak
andre batek jarri
ez diot esker txarrik
ematen inori
orduko unioa
beti da komeni
ala gerta dadila
biba gu ta Hernani.



NESKATX BATEN ERANTZUNA

INAXI ETXABE OLIDEN

Iturria: Nikolas Aldai, Bidegileak saila.

1933an Oikiako (Zumaia) Soutz baserrian jaioa. Bost urterekin hasi zen Oikiako eskolan. Eskuz pilotan aritzea gogoko zuen eta Oikian “garai batean onena” izan zela, harro gogoratzen du.

Hamalau urtera iristean amaitu zitzaion Inaxiri Oikiako eskolaztea. Etxean eskaini zioten nahi bazuen Zumaian ikasten jarraitzeko aukera. Baina etxean lanean gelditzea erabaki zuen.

Hamazazpi urte zituenean josten ikasten hasi zen Muniosoro baserrian.

Behizain joaten zenean beti eramaten omen zuen patrikan aitak edo anaietakoren batek nondik-handik ekarritako bertso-paperen bat. Kantatuz-kantatuz denak buruz ikasten omen zituen. Muniosoroko jostundegian bat-batean bertsoan ez, baina bertso kontuez maiz aritzen omen ziren hizketan. Eta bertso jarrien errepertorioa behin eta berriro berritzen zuten.

Bertsolari izatea estimatua zen Soutzen eta Oikian. Emakume bertsolariarena beste kontu bat zen, ordea. Inaxik dioenez emakumeak ez zeukan tabernetan eta bertsoan hasterik garai haietan. Bestela, laster egingo zen fama ederraren jabe. Horregatik tabernan-eta ez zuen Inaxik behin ere kantatu izan. Jendaurreko lehen saioa San Frantziskoren hirugarren ordenakoen urteko lagunarteko bazkarian

izan zen. Gero Arantzazun, gogo-jardunak egitera joan zenean. Bertako aldizkarian argitaratu zituen geroago bertso idatziak. Eta beti jirabira horretan gauzatu zen bere jarduna.

Plazan kantatzera iritsi zenerako bazituen urte batzuk. 1963an Antonio Arrue etorri zitzaion Euskaltzaindiaren izenean etxera. Donostiako Trinitate plazan jaialdi bat egitekotan zirela bertsolari gazte eta hasi berriekin eta emakumezko bat tartean izatea gauza handia izango zela eta joateko eskatu zion. Joan eta bertsoaren bat kantatu zuen. Baina euria hasi eta bertan behera gelditu zen funtzioa.

Inaxirentzat erabakigarria izan zen bere zaletasuna lantzen jarraitzeko Arantzazuko saria irabazi izana. Arantzazuko Amaren urte santua izan zen 1955eko irailetik 1956ko irailera bitartekoa. Era guztietako sariketak antolatu ziren urte santu hori zela eta. Herriz herri ibili zen Arantzazuko Amaren irudia eta sariketetako bat, ibilaldi horretan norberaren herrira egindako bisita bertsoan hobekien kontatzen zuenarentzat izan zen. 1956rako bostehun pezetako saria bazen zerbait, eta partaide asko izan zituen sariketak. Inaxi Etxabek jarritako bertso sorta hobetsi zuen epai-mahaiak. Garaipen horrek bere izena letradunen artean ezaguna izatea ekarri zuen.

TESTUINGURUA

Zarautzen, 2013an Basarriren bertso jarriekin osatutako emanaldian Inaxi Etxabek kontatua: “San Frantziskoren III. ordena bada Zarautzen. Han orri bat ateratzen zen hilero eta hor jarri zituen bertsoak Basarrik, emakumeen faltak azalduz. Falta handiak, izugarriak! Nik bertso horiek ikusi nituenean, esan nuen ez nuela utziko bakean! Nik ere erantzun nion, beste orri batean, handik hilabete batzuetara, gizonen faltak azalduz. Niri Basarrik ez zidan behin ere hitz egin eta ni ez nintzen atrebitzen beregana joaten, hain txikia ikusten nintzen bere ondoan... Beti ‘aio’ esaten zidan kalean eta nik ere bai, ‘aio’. Baina nire anaiarekin hitz egin izan zuen, Patxi Barberoren barberian egokituta, eta egun batean esan zion ‘zure arrebak oso ondo erantzun dit’”.

1

Basarri jauna, zuk badaukazu
aiton bat maite duzuna
zeuk diozunez berekin oso
sarri tratatzen duzuna
eta zuk ontzat ematen duzu
harek esaten dizuna
irakurrita daukat nik ondo
bertsotan jarri duzuna
hemen dihoakizu ba orain
neskatx baten erantzuna.

2

Emakumeak utzi gaituzu
oso okertzat hartuta
munduan diren zorigaitz danak
gure lepora botata
gizasemeak ote daukazu
santuagotzat hartuta
gai honen kontra zeresanikan
ez zait niri orain falta
bihotza nola jarria oso
daukaten minberatuta.

3

Bizio txarrik asko badago
gizasemeen artean
begiratzea nahikoa duzu
auzo taberna atean
egunero han ikusten dira
pozik asko zurrutean
jakinagatik hori dutela
beren buruan kaltean
ez dira hala ere geldituko
patrikak hustu artean.

4

Igande goiza etorri eta
beti gauza bat buruan
denborik ezin pasa dugu ta
aurrera txikiteuan
eguerdirako jarriko dira
ganberroaren moduan
hizkuntza ederrik entzungo duzu
gero beren inguruan
nik ezin neurtu ohitura horrek
zer kalte egiten dituan.

5

Nobelak ere ikusten dira
gaur askotxoren eskutan
esango nuke emakumeak
haina badirela hontan
zenbat gastatzen duten ez jakin
zigarro eta zinetan
jokoan berriz zeresanik ez,
taberna eta plazetan
miseriarik ez da faltatzen
gero famili askotan.

6

Noranahi joan nahi dutenean
ez dute falta dirurik
emakumeak ibili behar
zorrak ordaindu ezinik
etxean falta dan gauzagatik
ez dutelako axolik
neskatxak garai datorrenean
ez galdu zuen zentzunik
horrelako bat lagun hartuta
ez dagolako gauza onik.



ALDAKETA BOLADA

ROSI LAZKANO LARRAÑAGA

1958an Aiako Elkano auzoko Agote-Haundi baserrian jaioa. Orion bizi da. Umetan bertso asko kantatzen zituzten etxean eta 8 urterekin irratiko txapelketara Joxe Agirreren aldeko botoa bidali zuen bertso batean. Umeei ikastolako lanetan laguntzeko bertsoak jartzen zituen. Lagunarterako ere jartzen zituen, urtebetetzetarako, ezkonzetzetarako, Eguberritarako... Alabak animatuta Orioko bertso eskolan eman zuen izena (Herriko Etxean) eta 50 urte bete zituen egunean joan zen lehen aldiz. Bertako taldearekin trebatu da bat-batean. Hurrengo udaberrian, Korrikaren bueltan antolatzen duten Orioko txapelketan kantatu zuen bat-batean lehen aldiz jendaurrean, Satxota sagardotegian. Geroztik parte hartu du Zarauzko Txapelketan (txapeldun izan zen); Zarauzko Kopla Txapelketan; Martxoaren 8ko saioan Zarautzen eta Getariako festetako saioan.

TESTUINGURUA

2013ko irailean Azkizun (Getaria) emakume bertsozaleen topaketa egin zen. Leku berean egindako lehen topaketatik hamar urtera etorri zen bigarren hau, oraingoan Bertsozale Elkarteko Genero batzordeak deituta. Edade guztietako 45 kide elkartu ziren: 16 urteko koardila zen gazteena, 65 urtekoa plazan bide urratzaile izandakoa. Zazpi euskalkitan partekatu zituzten bertso munduko bizipenak eta gogoetak, eta emakume roletatik umorea lantzeko ariketak egin zituzten. Topaketa horretan kantatu zuen Rosi Lazkanok bere bizitza kontatzen duen sail hauxe.

1

Oroitzapenen zakua
erakusteko uea:
Baserri zahar handi baten
famili xume xumea,
eliza eta errezoa,
errespetua gainea,
“Ni bekataria”n hori
itsatsirikan soinea.
Elkarren babesak betez
diru gutxin hutsunea.
Zortzi senide zaharrago
ta azkeneko umea...
Zoriontsu ahaztu gabe
zarela emakumea.

2

Hamalau urte zitula
neskame lanetan hasi
nesken jakin beharra zen
obeditzea lehenbizi
gau eta egun langile
diru gutxi irabazi
hala ere bizitzarako
nonbait, ondo zuten hezi.
Behar beharrezkoa zen
plantxan ta josten ikasi
ezertan ez zekiela
etsita zenean kasi...
Nobioa egin eta
indultua irabazi!

3

Hamabost-hamasei urte:
barruan ezin kabituz,
esprikazio bakarra
zela “kontuz” eta “kontuz”,
astero desberdin batez
txoro-txoro maiteminduz,
denen jakitun zelako
ezer ezin konprenituz,
igande arratsaldea
noiz iritsiko kontatuz,
ta gustuko mutilari
lotsaz ezin begiraturuz...
Gaur ere gorrituko da
une haiek gogoraturuz.

4

Sei urtez nobioakin
eta elizaz ezkondu
estreinatu beharko zen
hainbeste zuena zaindu!
Ordura arteko beldurrak
nola bat-batean kendu?
Baina hogeita bat urtek
askorako ematen du!
Bikote idilikoa
nahiz pixkat behar zuzendu
ume bat, bi eta hiru
painala eta ukendu...
Etxekoandre izan arren
neskametza ematen du!

5

Urteak doaz aurrera
eta gorputza baldarra
aitzaki onak: semeak,
etxea edo senarra.
Aldaketa berri batek
ematen dio dardarra
geroz eta hurrerago
bakardadearen marra...
Bera maitatzea zeukan
itxuraz ahaztu xamarra
nahiz oraindik entzuten zun
bihotz taupaden indarra
ohartu da gozatzea
dela falta dun bakarra.

6

Berrogei eta hamabost
urte konplituta jada
nahiz sinisteko zaila den
da aldaketa bolada
beti hain lotsati eta
orain ezer ez da traba
ezagutzen zuten denak
harrituta ditu laga.
Nahiz ez izan senidea,
senarra edo alaba:
“Herriko Etxerako zita”
Ainhoaren* mezua da...
Bertsoak sentimentun bat
nahastu dio behar bada.

* Ainhoa Agirreazaldegia.



ETA AZKENIK... TXAPELKETAN

KRISTINA MARDARAS SEDRUN

1948an Iurretan jaioa. Fabrikan lan egin zuen lehenengo, Iurretako Maiztegi Herri Ikastetxean irakasle gero. 33 urte zituela egin zen titulazioaren jabe. Hainbat talderen sorreran parte hartu eta lan egin du: Durangoko Ikastola, AEK, EHE, bertso-eskola...

Durangoko bertso-eskola sortu zenean bertan hasi zen Jon Lopategi eta Anjel Uxaolarekin. 1982ko Bilboko jaietan egin zuen lehen plaza Santutxuko Bertso Eskolak antolatutako saioan. Bertsolari Elkartearen sorreran parte hartu zuen eta Elkarteak antolatutako lehen txapelketari babesa emateko parte hartu zuen. Kalean prakak jantztea eta oholtzara gona jantzita irtetea izan zuen aldarrikapen. Plaza utzita dago baina saioak antolatzen segitzen du.

TESTUINGURUA

1986ko Txapelketa Nagusirako Araba-Bizkaiko kanporaketa egin zen 1985ean Laudion. Txapelketan emakume bat bertsotan entzun zen lehen aldia izan zen.

Doinua: Dantzarik dantza Anbotopeko.

Eskenatoki hontara igo
ta lanean berehala
saio eder bat eskaini nahiz
eta ez nola edo hala
zuen aurrera kantuan dator
gaurkoz andre bat zabala
eskaritxo bat egin nahi diot
publikoaren magala!



OHOLTZAKO LEHEN URRATSAK

ARANTZAZU LOIDI GARITANO

1967an Aretxabaletan jaioa. Kazetaritza eta itzulpengintza ikasketak ditu. Herri komunikabideetan, Administrazioan (itzultzaile) eta EMUNen egin izan du lan. Egun PRH formazioa irakasten du.

Almen bertso eskolako lehen belaunaldiko kidea, Eskolarteko Txapelketetan nabarmendu zen. Plazan aritutako lehenengotako emakumea da. 1991ko Gipuzkoako Txapelketan parte hartua. Gai-jar-tzaile eta epaile lanetan ere ibilia.

TESTUINGURUA

1988an Elgoibarko jaialdian galdera hau jarri zioten gaitzat: “Zer sentitzen duzu emakume izanez bertsolaria izatean?”. Hona bere erantzuna.

Pixka pixka bat kostatuko zait
esaldi hau ahaztea,
bertsolaria emakumea
eta gainera gaztea,
nik nahiago dut kontu horiek
alde batera uztea,
problema ez da sexu kontua,
baizik ona izatea.

Abestu nahi dut txapela jantzi
duten nesken izenean,
gaurkoan hiru izen ditugu
gutxienean aurrean,
ez da esango neskak garena
behar bada egunen batean,
horiek eta beste batzuek
kantuz hasten direnean.



EZ DUGU GINDA IZAN NAHI

MAIALEN LUJANBIO-ESTITXU AROZENA-IRATXE IBARRA

TESTUINGURUA

1993ko Bertsolari Egunean kantatu zituzten bertso hauek. Garai hartan bertsolari zaharrak omentzen ziren Bertsolari Egunetan eta bertako publikoaren argazkia gizonezko helduek osatzen zutela esan liteke. Bertso eskoletatik gazte belaunaldiak ateratzen ari ziren, besteren artean hiru bertsolari hauek. Saioan kantatu zuten emakume bakarrak izanik, bukaeran deitu zituzten saioa biribiltzeko. Horrelaxe aurkeztu zituzten: “Historian lehenengo aldiz kantatuko dute hiru emakumek gaurko eguna bezalako ospakizun batean. Zer duzue esateko?”

Iratxe Ibarra:

Ia azkenak jarri gaituzte
zer modutara bestela?
Demostratuaz edukazio
larregirik ez dutela
o(ra)in hogeit urte nork usteko zu(e)n
hemen bilduko ginela?
hiru neskato bertso kantari
gaur bildu garen bezela?

Maialen Lujanbio:

Sinbolikoki jarri gaituzte
maskota gisan ere bai
ta borobila atera zedin
azken saioa gure zai
neska soileko saiorikan ez
bagara gehiorako gai
gizonezkoen tarta honetan
krema ez dugu izan nahi.

Estitxu Arozena:

Ez dut ulertzen pertsona batzuk gugan daukaten jarrera herri askotan anekdotatzen sarri izaten baikera inoiz baduzu bertso saio bat antolatzeko aukera gu ez eraman Tele5ra Carmen Sevillan antzera!

Iratxe Ibarra:

Erabiltzen den hizkerak ere badu nahiko zerikusi guk neskok kontu horretan behintzat ez baitugu hola bizi nahiz ta gizonak kristonak esan beren grazi eta guzi de puta madre gelditzen zaie ta guri berriz itsusi!

Maialen Lujanbio:

Lehenago hauek osatzen zuten bertso munduko bizitza beraiena zen irakaskuntza ta beraiena zen hitza. Ni orain dela berrogei urte hauen artean banitza apaizen menpe ez zen egongo orduko bertsolaritza!

Estitxu Arozena:

Emakumeok mikrofonoan jaso izan dugu burla gaur ere batzuk haserre daude ezin dute disimula. Ni ziur nago egunen baten erakutsiko dugula bertsolaritzak barrabilekin zerikusirik ez dula!

Ikusten ez diren mugak

1999an Goizuetako festetako bertso saioan gai-jartzaileak gogora ekarri zion Estitxu Arozenari 1993ko Bertso Egunean kantatu zuena. Hona bertsolari nafarrak emakumeek oholtzan egindako bideaz botatakoa:

Estitxu Arozena:

Bertso honekin oroitzapenak eragiten dit zirrara, garai horretan erantzuna zen irrifar edo algarra. Urteak dira irten ginela emakumeok plazara lehen anekdota hutsa ginenak orain bertsolari gara.

Oinarri txarrak baldin baditu aldatzen dira ohiturak; bide zidorrik ez izan arren bidea egin du urak. Haseran garbi izan genitun eredu eta helmugak, arriskutsuen bihurtu dira ikusten ez diren mugak.

Egun batez **nagusi**



TXAPELDUNAK

Bertsozale Elkarteak antolatutako txapelketetan zazpi txapel jantzi dituzte emakumeek. Herrialdeetan, Nafarroakoan eskuratu zuen lehenik garaipena (1995ean eta 1998an). Arabakoan hirutan nagusitu da (2007, 2009 eta 2013an) eta Gipuzkoakoa izan zen lortzen azkena (2003an). Bizkaikoa eta Iparraldekoa irabazteko daude.

Txapelketen gailurra 2009an lortu zuen, Euskal Herriko txapela jantzita.

MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI

1976an Hernanin jaioa. Eskolarteko Txapelketetan parte hartu zuen eta 15 urterekin ekin zion plazaz-plazako ibiliari, bere belaunaldiko beste zenbait bertsolari gazterekin bateratsu.

2003. urtean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen eta 2009an Euskal Herrikoa. Bost aldiz aritu da Txapelketa Nagusiko finalean, 1997, 2001 (txapeldunorde), 2005, 2009 eta 2013an (txapeldunorde).

Bertsotik abiatutako bestelako sorkuntza ariketak ere abiatu izan ditu: 2006tik 2011ra Ornitorrinkus proiektua ondu zuen Judith Montero eta Xabier Erkiziarekin. Musika esperimentalak, hotsak eta hitzak bat eginez, *Ornitorrinkus* disko-liburua eman zuten argitara. 2011n *Txori Mugariak* irrati performancea sortu zuen Xabier Erkiziarekin; eta 2013ko udan, *Hegi, Egi, Egiak* proiektua aurkeztu zuten Erkiziak eta Lujanbiok.

2009 BEC. Euskal Herriko Txapeldun.

Gogoratzen naiz, lehengo amonen
zapi gaineko gobaraz
gogoratzen naiz, lehengo amonaz,
gaurko amaz ta alabaz.
Joxei* ta zuei, mila zorion
miresmenaren zirrarez
ta amaituko dut txapel zati bat
zuek guztiontzat lagaz.
Gure bidea ez da erraza
bete legez, juizioz, trabaz.
Euskal Herriko lau ertzetara
itzuliko gara gabaz
eta hemen bildu den indarraz,
grinaz eta poz taupadaz
herri hau sortzen segi dezagun
euskaratik ta euskaraz.

2003 Irun. Gipuzkoako Txapeldun.

Txirrita ez baina orain niretzat
kolpeak ta igurtziak
hainbat jasoko ez dituztenei
muxuak ta goraintziak.
Muxuak bertso eskolakoei
Juanjo Urian* bitxiak
honen zati bat ere badute
lagun minek ta etxiak.
Baina behin behar ta omendu behar
gaur emakume guziak
ta bereziki zernahi bidetan
abitu ziren gutxiak
gizarte honek euren ametsen
erdibidean utziak.

* Joxe Agirre, berak jantzi zion txapela.

* Juanjo Uria Hernaniko bertso eskolaren sortzaileak txapela janztean Txirrita aipatu zuen.

ESTITXU AROZENA ALBIZU

1975ean Mutrikun sortua, hiru hilabeterekin Lesakara ekarri zuten aitaren (Manolo Arozena bertsolaria) lan aferak zirela-eta. Lesakako bertso eskolatik irtendako lehen belaunaldiko kidea; hamasei urterekin plazetarako urratsa eman zuen. Neska izateak hausnarketarako bidea ireki eta sexuen arteko desberdintasunen eta harremanen gainean sakontzera eraman du, baita akademikoki ere.

Nafarroako bertso eskoletan eta eskoletan bertsolaritza irakasle da. Euskal Herriko Txapelketetan kantatua da 1993tik 2005era, eta Nafarroakoan txapeldun 1995ean eta 1998an.

1995 Leitza. Nafarroako Txapeldun.

Emakumeak bertsolaritzan
ez dira hartu izan aintzat;
errandakoa pasatu zaigu
orain gutti arte behintzat.
Nik txapel beltza onartuko dut
hemengo oroigarritzat,
baina hala ere ez da niretzat,
ta errango dut zeinentzat:
gizartearen inposaketak
bota dituen neskentzat.

OIHANE PEREA PEREZ DE MENDIOLA

1977an jaiotako gasteiztarra, egun Lautadako Bikuñan bizi da. 12 urte zituela hasi zen Gasteizko bertso eskolan. Lautada, Aramaio eta Legutioko bertso-eskolen sortzaile, egun Arabako Bertsozale Elkarteko eragile eta irakaslea da. Amatasuna eta plaza uztartu zituen lehen bertso-laria. 2005, 2009 eta 2013ko Txapelketa Nagusietan partu hartu du. Arabako txapelduna izan zen 2007, 2009 eta 2013an.

2007 Gasteiz. Arabako Txapeldun.

Txapela ez da gauza handia
baina legala da behintzat.
Hainbeste zorte ez daukatenak
hartu nahi nituzke aintzat:
bere aurpegia jende aurrean
agertu ezin dutenentzat
bertso eskoletan buru belarri
ari zareten neskentzat
aita ta ama ta amonarentzat
Olatzentzat ta Unairentzat*
eta bertsoa maite duzuen
euskaltzale guztientzat.

* Ahizpa eta semea.

Norberarenak **oholtzara**



METALA ETA TXIRBILA BEGIETAN KANTATUAK

ALAITZ SARASOLA OLANO

1979an Altzagan (orduan Itsasondo) jaioa. Hainbat sari irabazitakoa, nola bat bateko bertsoetan hala idatzizkoetan. Kazetaritza, mekanika eta administraritza ikasia. Egun hornikuntza teknikari da.

TESTUINGURUA

2002an Ataungo jaialdian gai hau jarri zioten garai hartan bere ofizio zuenari buruz: “Garai bateko emakumeen ofizioak erraz laburbildu genitzake: jostunak, zerbitzariak edo etxeakoandreak ziren. Zuk, Alaitz, tornulari bezala lan egitea erabaki duzu. Tornu erraldoi indartsu baten aurrean zaudela, zure gogoetak”. Bere bizipenetatik kantatu zuen.

1

Tornero gisa hurbildu nintzen
ni tailer txiki batera.
Nahiz ta sarritan txirbil pusketak
joan begien artera
hil azkenean poztasun handiz
bete izan dut kartera
ta lan honetan hasi ezkeroz
ia urtea bete da.
Gizonen lana omen da baina
ez zait bizarrik atera!

2

Lizentziatuen krisiak gogor
egin duenez eztanda
nire hautua ofiziorantz
bideratzea izan da
eskuratuaz oraintxe dugun
lan anitzetan demanda.
Zertan egondu behar gerade
hanka hankari emanda?
Horrela narras egingo dugu
berdintasun propaganda.

3

Niri lagunak bihurtu zaizkit
metala eta txirbila.
Aurrera ere jarraituko dut
iraultza txikien bila.
Zertan amildu fintasunean
berez banauzu abila?
Segi dezagun bide honetan
hau ez da bide isila
ta aurrekoena izan ez dena
geurea izan dadila!



PILOTA ETA JAINKOAK

AINHOA AGIRREAZALDEGI REKONDO

1978an Elgetan jaioa, egun Zarautzen bizi da. Helduen euskara irakaslea da Donostiako Hizkuntza Eskola Ofizialean. Bertsotan gazte mailako sari asko irabazia eta Txapelketa Nagusian parte hartua 2009an eta 2013an. Bertsozale Elkarteko ikerkuntza saileko kidea izan da azken 16 urteotan. Xenpelar Dokumentazio Zentroan ikerketa lanak egin zituen, irakasle hasi zen arte.

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ

1984an jaioa, Elgoibarren. Getarian bizi da. Bertsolariaz gain idazlea, 2007an *Aulki bat elurretan* ipuin-liburua argitaratu zuen; 2009n *Aulki-jokoa* eleberria eta 2013an *Euli giro* ipuin bilduma. 2009ko Txapelketa Nagusian parte hartu zuen.

Bertso eskola feministak eman dituzte 2013an elkarrekin. Beste hainbat bertsolarirekin batera, *Ez da kasualitatea* emanaldi bereziak eskaintzen dituzte. Musika, antzezpena eta bertsoak uztartzen dituzten saio horiek giro intimoa bilatzen dute, eta gaiak beste tonu batzuetan lantzen dira. Gai sortzerakoan genero ikuspegia kontuan izaten da.

TESTUINGURUA:

2009an Tolosan, Txapelketa Nagusiko kanporaketan gai hau tokatu zitzaien: “Ainhoa, pilotaria zara, eta partida bat jokatu behar duzun bakoitzean, kandela bat jartzen dio Uxue amonak Ama Birjinari. Azkenaldian, ez duzu partida bakar bat ere irabazten”.

Gaia entzun, eta Uxue Alberdik Uxue Fernandez ikusi zuen publiko lehen lerroetan: bertsolaria eta “emakume pilotari” proiektuko irakaslea. Agirreazaldegi esan zion “Ainhoa, zu neska zara” eta berak erantzun “a, bai!”. Erabaki horren emaitza, gaiak hartu zuen bidea.

Doinua: Dama gazte xarmant bat.

Ainhoa Agirreazaldegi:

Nahiz ta kandela ari den
pixkanaka urtzen
goitik inortxok ere
niri ez dit lagutzen.
Jainkoarekin nago
hasita beldurtzen:
neska pilotariak
ez ditu ezagutzen.

Uxue Alberdi:

Pilotan neskabila
hau dabil galako
galtza zuriak jantzi
dejada ta salto...
Jainkoa zure alde
ez da jartzen bapo!
baina juxtu Jainkoa
gizona delako.

Ainhoa Agirreazaldegi:

Frontoian gehiegitxo
ez dira bi paret
baina nire kaxara
zer egin dezaket?
Nola lagunduko dit
gizon Jainko batek?
Zure sorginkeritan
gehio sinisten det.

Uxue Alberdi:

Nire ustez ona zen
kandela taktika
baina aldatuko dut
neraman praktika:
irabaziko duzu
partidua ti-ta
Anbotoko Mariri
kandela jarrita.

Ainhoa Agirreazaldegi:

Anbotoko Mari da
dama dotorea
ta hark ni laguntzea
a zer ohorea!
Hari kandelarikan
ez jarri ordea
amona jarriozu
eguzki lorea.

Uxue Alberdi:

Ekiren babespean
ondo egongo zara.
Neska ta pilotari
dena duzu traba
hartu zazu amonan
muxu ta eupada
zuk jolastea soila
irabaztea da!

BORROKEI JARRIAK

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ

Arrainak eta bizikletak

ARGIA astekariko Bertso Berriak atalerako idatziriko sorta,
2.349. alean argitaratua, 2012-12-16an.

Doinua: Habanera.

1

Azaroak 25
eskailera ditu igo:
“eraso gehiagorik ez!”
aditu dugu berriro.
Egunkarietan, zifrak:
zenbat gorpu, zenbat tiro.
Inon agertzen ez diren
zenbat kate posesibo?
Baina ez gara zenbaki
edo biktima pasibo!
Badugu antolatzeko
adina sen ta motibo
izan dezagun eraso
bat jasaten den aldiro
erantzun pertsonal bat ta
mila erantzun kolektibo.

2

Emakumeak gizona
behar du, ez al da hala?
arrainak bizikleta bat
behar dezakeen bezala.
Elkartu eta gozatu
dezakete, ta oxala!
libertatea delako
itsaso oso zabala.
Norberak bere burua
errespetatu dezala,
zainduz bidea ta ura,
izerdia ta kresala.
Arrainak hegan ikasi
baitezake berehala
bizikletak igerian
ere ikasi ahala.

3

Norberak daki ondoen
zer den eraso, zer txantxa,
norekin ta ze ordutan
joan nahi duen etxerantza,
non hasten den abusua,
non amaitzen konfiantza,
zer den menpekotasuna
eta zer adiskidantza.
Feminismoak indarrak
metatzera garamatza,
sare zula ezina da
konplizeen aliantza.
Ongi etorria zara,
zatoz, izan segurantza:
iraultza honen musikan
egingo dugula dantza.

Abortu eskubideari

ARGIA astekariko Bertso Berriak
atalerako idatziriko sorta. 2372.
alean argitaratua, 2.013-06-09an.

Doinua: Habanera.

1

Urte luzetan egina
klandestinoki, gordeka...
Prezioa: arriskua
eta milaka pezeta.
Feministen aldarriak
zartatu zuen pareta
umetoki bakartuak
elkartu ginen taldeka:
"nik ere abortatu dut!"
garrasi bat zen, kolpeka.
Isil dezagun sotanen
ta gorbaten berriketa
bizia aitzaki jarriz
legeen baitan gordeta
gorputzaren jabegoa
negoziazten dute-ta.

2

Zein da gai honen mamia?
Zein asuntoaren funtsa?
Zer dela eta PPre
seta, ardurua, zaputza?
Betikotu nahi dutela
emearen zapalkuntza,
iraunaraziz objektu,
oztopatuz jabekuntza.
Uteroa geurea da,
izan betea zein hutsa.
Geure zulo, geure odol:
ez inoren bozka-kutxa.
Arma gaitezen: bularrez,
aluz, hortzez egin bultza!
Gudu-zelai bilakatu
digutelako gorputza.

3

Ez apaizak, ez obstetrak,
ez maisuak, ez senarrak,
ez juezak, ez nobioak.
ez mediku egoiliarrak,
ez aitak, ez poliziak,
ez jakintsuen biltzarrak,
ez politiko progreak,
ez sektore eskuindarrak,
ez familia plangintzek,
ez etsaiak, ez gutarrak
ez Freudek, ez Jaungoikoak
ez katedradun azkarrak,
ez ohiturak, ez legeak,
ez potroek, ez bizarrak:
geu gara zer behar dugun
ondo dakigun bakarrak.

HAURDUNALDIA

OIHANE PEREA PEREZ DE MENDIOLA

1

Bost urte t'ardi, atzo bezala
azkar joan da denbora...
ni bera gabe ez naiz iristen
orain pertsona osora.
Gure odolek bat egitea,
horixe nahi dut gerora,
paperak utziz albora,
maitasun hutsaren froga.
bere zati bat lapurtuko dut
ekarri nire altzora,
barru barruan sentitu eta
nire zati izango da.

2

Farmaziara dardarka joan naiz
faltan dut hilerokoa.
aukera eta zorte kontua
da bizitzaren jokoa.
Instrukzioak hamalau aldiz
irakurrita, nahikoa.
Puntu bat ala bikoa?
baietz kategorikoa!
Bizi osoa alda dezakeen
tramankulu magikoa!
Hezur-haragi egin da nire
amets mikroskopikoa.

3

Niretzako zen ustea eta
beretzat ezustekoa;
orain negarrez, orain haserre...
ezer ez da berezkoa;
hormonak hasi dira egiten
beraien egitekhoa.
Makinaria perfektoa
makinista gabekoa.
Komunerako joan etorritan
hustuta barrenekoa,
deskubritu dut dena ez dela
larrosa kolorekoa.

4

Nahiz eta dudan nekea eta
sari nabilen botaka,
nahiz eta nire gorputza ez den
itxuraz horren aparta...
Txuri beltzean ikusi dugu
aita ta biok dardarka:
bost zentimetroko marka
ez du izango pasata,
begi, belarri, aho, sudurra,
bi esku eta bi hanka...
Bere bihotza entzun orduko
amarena preso dauka.

5

Egunak joan eta etorri
borobiltzen zait sabela,
bizilagunak txutxu-mutxuka
zerbait loditu naizela...
Gustuko frakak ezin ipini
pozik nago dena dela:
ezer ez da lehen bezela
ezberdin nago horrela.
Badut distira ezohikoa
badut sekretu itzela...
Beste gauzarik ez dut desio
denek jakin dezatela!

6

Tripa bete bat baino gehiago,
seme eta ez alaba,
laztandu eta ez daukat argi
norbait egongo al da ba?
ezustekoan zuk hala nahita
kontaktuan jarri gara:
lehenbiziko ostikada
nabaritu eta hara!
hau da sustoa, hau da sorpresa
hau da poz eta zirrara!
Norena zaren badakit baina,
Nor bihurtzen ari zara!

7

Begira nola egiten duen
txoriak bere kabia...
Horrela nabil, gelarik gela,
dena utzi dut garbia.
Ez nuen uste sagu kaskarin
bilakatzerik, egia;
lurrera jausi begia
ta erratza erne ia.
Etxeko andre bihurtu naute
hormonen sorginkeria...
etxe zahar hau izan behar da
zuretzako jauregia.

8

Sabela gogor jarri zait eta
mina dator berehala,
odol pitin bat, nerbio asko...
itxuraz dena normala.
Minutu batek bestea dakar
leherketa bat bezala,
orduak pasatu ahala
ospitalera noala,
zenbat unetan pentsatu dudana:
"bere aitak egin dezala!"
madarikatzen baldin bazaitut
ez da ezer pertsonala.

9

Pelikuletan bezalakoa
ez da izaten jaiotza:
emagin haren umore txarra
ginekologo arrotza...
hankak zabalik, erdi lotuta
erditzeke gela hotza,
min luze eta zorrotza,
eta memoria motza.
Zoriontasun iturri izan
al daiteke negar hotsa?
zatoz amaren besoetara
ongi etorri bihotza!



AMA ERDITU GABE

AMAIA AGIRRE ARRASTOA

1977an Villabonan jaioa. Euskal Filologian lizentziatua. Hitzetik Hortzera bertso programan aritu zen lanean zortzi urtez, eta egun hezkuntza arautuan bertso irakasle da eta Tolosaldeko Harituz bertso elkarguneko kide. 2005, 2009 eta 2013ko Txapelketa Nagusietan parte hartu du.

TESTUINGURUA

2013ko Txapelketa Nagusian parte hartzen ari zela, ama izateko zain zegoen, Hendaia-ko saioan kantatutako bertso hauetan kon-
tatzen duen moduan. Zorionez, gurasoen
babes osoarekin, bertsotan bestelakoa kan-
tatu bazuen ere.

Hau izan zen jarritako kartzelako gaia: Lor zenezakeen guztia lortu duzu baina jendeak ez dizu begirune handiegirik.

Gure kasa ezin haurrik ekarri
bi emakume izaki,
ta intseminatze prozesua da
gure ezinen estalki.
Ta haurdunaldi multiple batek
digu bakea ebaki,
bost fetu, bost bizi zati
bihurtu nahian gizaki.
Bostekin ezin ta hiru kentzea
nahiz ta biok erabaki,
hemendik inoiz pasa ez denak
ze gogorra dan ez daki!

Batzuk esango dute “Amaia,
nolako neska ausarta!”
Ama izan nahi dut baina ondoan
gizonezkoak lagata.
Bai, haurdun gaude hau egia da,
zeinen amets on, aparta.
Lasai atera pankarta,
jaso eskuak goraka,
baina etxean arazo bat dut
eta ezin dut aguanta,
ametsa bete baina aita ta
aman oniritzia falta.

Ardo txarretik eman ondoren
ozpin diren mila trago,
badut koadrilan babesa eta
bikotea dut abaro.
Baina aita-amak gertu banitu
hori nukeen nahiago,
lur jota ez nago zeharo
amagai naiz ta akabo,
begirunerik ez daukat baina
borrokatzeko prest nago,
gugan bi bihotz ikus ditzaten
bi alu baino lehenago.

IZAN BEHARRARI JARRIAK

MAIALEN LUJANBIO ZUGASTI

ARGIA astekariko Bertso Berriak atalerako idatziriko sorta. 2060. alean argitaratua, 2006-10-29an.

1

“BetiZu”-ei so eta
ni beti sutzeaz:
urrixa atze-estu,
hezur-azal, mehar!
Behi plakoa gaitz ikur
zen mendeetan zehar...
Orain behi izanda ere
argal izan behar!

2

“BetiZu”, mundu modu
baten sintesia:
haurra helduz jantzia,
haiei so hezia,
sei urterako izan
behar du sexia,
hamabirako igual
“Miss Anorexia”.

3

Umeek behar dute
heldu; ta orobat,
helduek behar dute
plantaz euren lobak,
bihar ta etzi ere
atzo ziren lorak.
Beti gazte beharra:
Bazen behin belo bat...

4

Beti gazte ta ferde
eder ta linian,
oinak minbera baina
moda ipinian.
Eder-nahia ederra da,
mimo hori Ni-an...
Ez, kabitu beharra
besteren ninian.

5

Kabitzeko, -ta ondo
beteaz moldea-,
azalean behar da
txigor kolorea.
Ilbeltz gorrian ere
distira morea,
errainuak non, han da
uva-izpi lorea.

6

“Behi-Barbi”en tranpara
kontuz, ez erori!
ta amestu galtzea
kilo bat, kilo bi...
Ezin da beti gazte,
apain, ile-ori...
...baina Guk beti Zu nahi,
Ni ez naizen hori.

SEXU ZERBITZUAN

OIHANE PEREA PEREZ DE MENDIOLA



TESTUINGURUA

Oihane Perek, Onintza Enbeitak eta Iratxe Ibarrak Bertso Kabareta eskaini zuten herriz herri 2006an. Emakumeen bizipenak kontatzen zituzten bertso jarriak eta bat-batekoak tartekatuz, emanaldi probokatzailerik eta umoretsua osatu zuten, publikoa ere bertatik bertara zirikatuz.

Kabaretaren espirituari jarraiki, 2007ko Bertso Egunean sorta hau kantatu zuen Perek, Kursaal.

Emagaldu bat izanda
ez zait gertatu gaurdaino
bertsolaritza sartu zait
barru-barruraino.
Bat-batean Bizkaian
aberastu nahian
bonbilla bat piztera
urtarrilean berriz
enegarren aldiz
Donostin Kursaalera
atsedenik ez daukat
bezeroak hainbat
goizetik gauera.
Badakit zertara etortzen diren
Bertso Egunera.

1

Lehenbizikoak kuriositate
pixkat sortu zuen nigan:
Bertsolaria ez zen kalbo bat
deskargatzeko desiran
sartu zen eta zituen pena
denak kontatu zizkidan.
Elkartearen hazia isuri,
amaitu eta segidan
badaezpada ere, zerbitzuaren
faktura eskatu zidan.

2

Hurrengoari eskatu nion
betaurrekoak kentzeko
diplomaziaz erantzun zidan
"Horrela nago ederto".
Hau frantsesean arreglatzen zen
besteak baino hobeto
baina itxuraz presaz zebilen
saio batera joateko
txandal ta guzti etorri baitzen
azkarrago bukatzeko.

3

Horren ondoren bizar zuri bat
agertu zen parez pare
ea nahi nuen bertso sorta bat
egitea nire alde.
Diru askorik ez zuen baina
onartu nuen hala ere.
Honek librean bazuen nahiko
gogo ta abilidade
hiru ordutan aritu ginen
eta biagarrik gabe.

4

Patilladun bat sartu zen gero
(uste dut hau ona zela).
Bere urteak zirela eta
bakarrik utzi zutela
"No my love, no cry" kantatzen nion
beste askori bezela
ta latigo bat eskaini nion
hartu zuen poz itzela.
Behin eta berriz esaten zuen:
izorratu daitezela!

5

Bertsolaria zen kalbo batek
ere egin zidan bisita
atzamarretan ducadosa ta
bakero beltzak jantzita.
Dena bider lau egiten zuen
gauzak egiten hasita
debalde ere aseko nuke
nik gizon horren irrika...
Ate ostean daukat oraindik
bere txapela eskegita.

HILEKOA

2013ko Bidarraiko bertso udalekuetan *Ezagutzen zaitut* kanta egin zuten “Kobazuloetako erreginak” deituek: Leire Amenabar Larrañaga, Maialen Akizu Bidegain, Graxi Arregi Leonardo, Kattalin Barceña Guarrotxena, Arrate Gaztelu Agirre, Maddi Mendibil Artetxe, Amaia Urbietta Arruti eta Ane Zuazubiskar Iñarra. Youtuben dago bideoa ikusgai.

Egun denek usain bera
ez dute izaten gugan
gorputz ezjakin honekin
abenturan
modu salatariari
kuleroko zurian
ilusioz ta beldurrez
ezagutu zintudan.

Emakume naiz zurekin
gusturik gabeko muxu goxoekin
atzamarren dantzan
gozamenarekin
gorriz, gorriz zikindutako
ezpaineekin.

Makillaje azpiko grano denekin
igande goizetako ajearekin
arrazoi gabeko malko alaiekin
gorriz, gorriz zikindutako
ezpaineekin.

Mina daukat zurekin
ta mina zu gabe
zergatik zara nire
irrifarraren jabe?
Hilean behin agertuz
argi sentitzeko

nola naizen nire
gorputzaren menpeko
nahiz eta asko eman
diogun elkarri
zergatik dugu mina
bizitzaren oinarri?

Mina daukat zurekin
ta mina zu gabe
zergatik zara nire
irrifarraren jabe?
Hilean behin agertuz
argi sentitzeko
nola naizen nire
gorputzaren menpeko
denbora pixkanaka
aurrera joan ahala
ikasi dut nirekin
behar zaitudala.

Egun denek usain bera
ez dute izaten gugan
gorputz ezjakin honekin
abenturan
modu salatariari
kuleroko zurian
ez dakizu zuri esker
zenbat ikasi dudan.



AMAREN ALABAK

MADDALEN ARZALLUS ANTIA

1990ean Hendaian jaioa. Itzulpengintza eta interpretazioan lizentziatua. Hainbat gazte sariketa irabazia, 2009ko Euskal Herriko Txapelketan parte hartu zuen.

MIREN AMURIZA PLAZA

1990ean Berrizen jaioa. Hainbat sari lortu zituen Eskolarteko Txapelketetan. Berrizko Bertso Eskolako arduraduna da.

2009ko eta 2013ko Txapelketa Nagusietan parte hartua. Euskal Filologian lizentziaduna, irakasle ikasketak egiten ari da eta hainbat aldizkaritan dihardu kolaboratzaile.

TESTUINGURUA

Abizenean islatzen zaie aita bertsolarien herentzia. Amen izenak ekarri zituzten plazara 2010eko Bertso Egunean, afalostean kantatutako bertso jarrietan.

Doinua: Maisu zer da Ruanda.

Maddalen Arzallus:

Gertutik bizi izan
dute txapelketa
poltsikoak klineexez
goraino beteta.
Agurren bat prestatu
diegu tarteka
ta eurentzat da gaurko
bertso gogoeta
gure amek hainbeste
merezi dute-ta.

Miren Amuriza:

Bertsolarion amak
gu animatzeko
hantxe egoten dira
saio bakoitzeko
eskuakin dantzatzuz
hiru-lau panfleto
ze estiloa duten
abanikatzeko
Pantojak ere ez luke
egingo hobeto.

Maddalen Arzallus:

Beste batzuk ez dira
ausartzen sartzera
pentsatuz “zenbat aldiz
gelditu ote da?”.
Errekorritzen dute
frontoiko sarrera
pauso hoiek kontatu
ezkero luzera
helduko lirateke
maratoi batera.

Miren Amuriza:

Lasaitasunez egin
ohi dute asperen
saio bukaerara
heltzean bederen.
Euren lekuan jarri
behar dugu zeren
bertsolarion amak
omendu ondoren
ama bertsolariak
ea izaten garen!

**Maddalen Arzallus eta
Miren Amuriza:**

Baina titularretan
beti dira tabu
gure kasuan behintzat
ikusten da klaru
norbaitek honi buruz
idatzi nahi badu
abizena baino lehen
izena daukagu
ta Arantza ta Mirenen
alabak gara gu.

Doinua: Mikel Urdangarinen "mendebalderako tren".

Maddalen Arzallus:

Ez dut gogoan lehen muxua
lehendabiziko bularra
ez dut gogoan bizirauteko
bertatik edan beharra
nahiz eta ahaztu amak lehenengo
eginiko irrifarra
ziur naiz hortik datorkidala
bertsotarako indarra.

Miren Amuriza:

Haren ondoan bizi izan naiz
erregina bat bezela
ezin zitekeen hobeto bete
ama on baten papela
segundu batez pentsatuz gero
ni epaile bat naizela
euren buruan jarriko nuke
Euskal Herriko txapela.

Miren Amuriza:

"Nere herriko neskatxa maite"
kantatzen zidan gauetan
eta halaxe hasi ohi nintzen
egunero ametsetan.
Gaur gure amaren seaska kantez
gogoratzen naiz plazetan
haren ahotsa ateratzen zait
kantuan nagoenetan.

**Maddalen Arzallus eta
Miren Amuriza:**

Etxe barruko lamia eta
inguruetakoko dama
bihar goizean hurbil zaitezte
goxo goxo beragana
ta esaiozue orain artean
lotsaz gordetako dana
eskerrik asko guztiagatik
asko maite zaitut ama!

Maddalen Arzallus:

Nahiz ta gutxitan aipatu dudan
bertsotan bere izena
nahiz txapelketan bere lekua
den guztietan zailena
sarri esan dit nere fansetan
handiena bera dena
baina ez daki ni neu naizela
bera miresten duena.

ZURE SORGINA ASKATZEN

MIREN AMURIZA PLAZA

ARGIA astekariko Bertso Berriak atalerako idatziriko sorta. 2.392. alean argitaratua, 2013-11-24an.

Doinua: Gure herri txiki hau da.

1

Moja bat meza laguntzen
preso habito beltzean,
aktorea bat antzezen
emaztea ezkaratzean,
modeloak kulerotan
udaberriko pasean,
ziklisten podiumeko
xanpainaren lorratzean...
Horrela agertu ginen
andreak oholtzaratzean;
isilik, biluzik edo
gizonezkoen atzean.

2

Gaur egun izan gaitzeko
etenik bako katea:
mimoa, margolaria,
bertsolaria, alkatea...
Zergatik ez berreraiki
oholtza eta artea?
Sentipenak hitzez jantziz
edo erantziz jakea,
sorkuntzatik haratago
hau baita libertatea:
nola biluztu nahi dugun
hautatu ahal izatea.

3

Gure aurretik hamaika
Maurizia Aldeiturriaga,
bakarrik kantatzeko gai
izan zirelako gara.
Feminitatea islatuz
bakoitzak bere erara,
malko, irrintzi, hasperen,
ulu, txalo zaparrada...
Egin jauzi oholtzara
amona, ama, alaba!
Zure sorgina askatzen
animatuko al zara?

KONPLIZE DITUT ETA...

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ

ARGIA astekariko Bertso Berriak atalean (2.317. alea, 2012-04-01) argitaratua. Aire Ahizpek eta Mikel Markezek abestuta ikusgai dago Youtuben.

Doinua: Argira sortu nintzen.

1

Emakume zuzenak,
okerrak, kirtenak,
moja txintxoak eta
zerrama irtenak,
itsusiak, politikak,
atletak, herrenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

2

Langileak, alferrak,
lanik ez dutenak,
tuntunak, mediokreak,
klaseko lehenak,
ale desegokiak,
andre txit gorenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

3

Ama onak ta txarrak,
ama ez direnak,
lurrera jausi arte
mozkortzen onenak
ta umeen merienda
usaina dutenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

4


Lotsatiak, ausartak
argalak, gizenak,
iletsuak, soil-soilak,
marimutilenak,
katemeak, gorilak,
panterak, zezenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

5

Markesaren alabak,
neskame gizenak,
printzesak ta sorginak,
ogroak, sirenak,
Maritxuak, Bartolo
itxura dutenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

6

Lehen munduko emeak,
kapitalistenak,
lur usaia daukaten
andre indigenak,
zuri, gorri, horiak,
beltzetan beltzenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.



Koedizioa



Babesleak

